KRITIKA IGOR ESTANKONA

Enfasirik gabe leun

TITULUA: 'MAITATU ZURE EGUNAK' EGILEA: PAKO ARISTI ARGITALETXEA: EREIN, 2018

PAKO Aristiren azken aldiko poema liburu bakoitza aurrekoaren bidetik doa, beti aurrerago doa, sakondu egiten du ideia nagusi batean: ideiak eta pentsamenduak dira, hain zuzen, gure benetako izatea ikusten uzten ez diguten smoga. Berriro poemategi perfektu bat moldatu du material eternoekin.

"Geurekiko urruntasunak/ sorturiko zauriak/ gorputzean elikatzen dira,// eta munduan egotearen/ zirrara bera da/ ebakirik zornetsuena.// Zerbaiten barne izan nahia,/ eta zerbait gure parte,/ bizitza bat horren eske.// Bakardadea, aparra, oilarra/ inorenak ez direnean./ Izan dira, aski dute horrela,/ guk bezala". Misterioa eta testuen biluztasuna. Desikasiz hurreratzen gaitu *Maiatatu zure egunak* honetan Pako Aristik muinera. Eta muina da oraina, instantea. Zer daukagu, bada, horixe ez bada?

Natura ikusgarri eta amultsu bezain beldurgarria dakar Aristik liburuaren hastapenean. Ikusi eta sentitu egiten ditu irakurleak idazlearen ikuskariak. Eta liburua aurrera doa gero haikuak ere ez diren hiru ahapalditako haiku faltsu horiekin, egia diotenak, bestalde.

Forma poetiko zahar horrekin, paradoxikoki, Pakok gaztigatzen digu gaurko egun hauek baino ez ditugula. Harago dagoela izango ez dena: "Unean eder zena/ higatzen baita gero". Atzerago, ostera, izan ez zena: "Oroimen uste dugun oro/ ez ote asmatua,/ edo, nork daki,/ beste bizitzaren batetik/ iritsitako adabaki?".

Nor edo nork pentsa lezake Aristi elokuentea, politikoa, nobelagilea, Taora emana jartzen dela poesiarekin. Baina, egia esan, diskurtsoan badago batasun bat, autoreak polemika maite duen bezala maite du ibaiaren ur geldia, gerra bezain beharrezko deritzo bakearen arteari. Biak dira bat, Sun Tzuk esango lukeen legez. Eta Aristiri txinatarraren esaldi bat datorkio ondo, bere poesia definitzen du: "gudari zuhurra da irabazi bakarrik ez, gainera sinpletasunez irabazten duena".

Sinpletasuna baita, eta ez beste ezer, obra honi batasuna ematen diona. Enfasirik gabe doa dena, diskurtso lasai eta eguneroko apunte itxuraz arrunten artean. Eta itxuraz arruntak diren gai prosaiko horiek dira hain zuzen emozio sakon bat eragiten dutenak: zeru bat, heriotza bera, bidezidor bat gauean ilargiak bustia... niri behintzat poema hauek bete egin dizkidate bihotz begiak, badute finezia bat maisuaren lumak bakarrik eman dezakeena: "Lehen loreak ere ikusi ditut,/ hiru lore lotsati/ San Anton mendiko/ bankuaren azpian/ (...) / Gaur denetik ikusi dut:/ Begiak bete dizkidan egun bat/ oparitu dit harridurak". Lezioa hauxe litzateke, finean: "Maitatu zure egunak:/ laster desagertuko dira./ Maitatu zure orduak, minutuak,/ zeruak eta neguak./ Zu asko ohartu gabe/ iragaten dira,/ pentsamenduetan galdurik/ zabiltzan bitartean".

Desikasiz hurreratzen gaitu Pako Aristik muinera. Eta muina da oraina, instantea. Zer daukagu, bada, horixe ez bada?

Maiz aipatzen du Pako Aristik adimena, zeharka ageri da zerebroa. Baina buru hori ez da ikasita datorrena, aurre-juzkuz betetako pentsamendu epai-emaileak dakartzana. Hemengo "harridura" edo "gogoa" edo "irudimena" bestelakoak dira, ez dira harritzen ezertaz. Berdin onartzen dute udaberria zein udagoiena, bizitza zein heriotza. Agian ez dagoelako eurentzat udaberri edo udagoienik, bizitzarik ez heriotzarik, une honetaz landa.

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Amek ez dute**
Katixa Agirre. Elkar (Zubikarai Saria).
2. **Munduko tokirik ederrena**
Iñigo Aranbarri. Susa.
3. **Bizitzea ez al da oso arriskutsua?**
Joseba Sarrionandia. Pamiela.
4. **Bihotz handiegia**
Eider Rodriguez. Susa.
5. **Black is beltza**
F. Muguruzua, H. Cano. Susa.

Ez Fikzioa

1. **Euskal Herriko historia ilustratua 3**
Joseba Asiron. Txalaparta.
2. **Hitzen ahairea**
Gotzon Barandiaran. Susa.
3. **Everest, 1980ko euskal espedizioa**
Ramon Olasagasti. Sua.
4. **Gerezi garaia**
Mikel Santos 'Belatz'. Txalaparta.
5. **Carlos Garaikoetxea**
Elixabete Garmendia. Elkar.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Malkoak lur antzuan'

Toti Martinez de Lezea. Erein. 296 orr. 20 euro.

Sasoi gogor baten kontakizuna

XX. mendeko 30eko urteetan, Badajozeko herri txiki batean, nekazari bat, Damaso, miseria gorritik atera ahal izateko borrokan bizi da. Eskualde hartako lurrak jauntxoenak dira, eta herriko jendea goseak hiltzen da. Gerrak iraultzen du Damasoren bizitza, ihes egitera behartuta gertatuko baita, eta, bitartean, etxekoak derrigortuak egongo dira ahal duten moduan bizimodua aurrera ateratzera. Handik hogeita hamar urtera, Bizkaiko fabrika batean lanean aurkitzen dugu Damasoren seme Manuel. Garai gogor bati buruzko kontakizuna dakar Toti Martinez de Lezeak oraingo honetan.

ALBUM ILUSTRATUA

'Lagun berriak'

Testua eta ilust.: Tomi Ungerer. Itz.: A. Irazustabarrena. Pamiela. 40 orr. 15 euro.

Arrazakeria-ren aurkako albuma

Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez duelako lagunik, baina gurasoek opari egindako errementei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz. Egun batean Ki ezagutuko du, auzoan bizi den Asiako bikote baten alaba, eta honek bere burua eskainiko dio panpinak jantzeko arropa josteko. Hala, sormenaren bidetik, auzokide izateaz gain, lagun min ere bilakatuko dira. Arrazakeria eta tolerantzia-eza arbuiatzen ditu Tomi Ungererren album ilustratu honek.

ZALDI EROA